

Funtsezko elkarteak

- ★ Informatiko taldea: hauen lana webgunea eta aplikazio diseinatzea da, baita hauek berritua mantentzea denbora guztian. Horrez gain, informatikarekin edo aplikazioarekin erlazionatutako edozein arazo konpontzeko prest egon beharko litzateke. Horretarako, diseinu taldearekin harremanetan egon beharko litzateke.

- ★ Diseinu / Moda taldea: modan lan egiten duen orok, diseinatzaile edo modelo famatuetatik web diseinatzaileetara. Hauen lana da webgunea beti berritua mantentzea, hau da azken tendentziara egotea dena (horretarako informatika taldearekin lan egin beharko du). Bestalde, influentzia handiko pertsonen (modelo, diseinatzaile, influencer, trendseter...) lana bezeroak bereganatzea eta kontsumitzera animatzea izango da, baita webgune/aplikazioari publizitatea ematea.

- ★ Bezeroarekiko zerbitzuak: Honetan bezeroarentzako zerbitzu pertsonalizatua eta haien kezkek bideratzen dituzten langileak sartzen dira. Hauek bezeroari laguntzeko prest egon beharko dira beti. Gainera, diseinu/moda taldearekin lan egin beharko dute bezeroei onuragarri suertatzeko modari buruzko kontu edo aferetan.

- ★ Dendetako langileak: Denda bakoitzeko buruekin akordioak egitea garrantzitsua da sail honetan, bere negozioarekin erlazionatuta egongo delako geure webgunea. Hortaz, denda bakoitzeko langileak prest egongo dira gure langile, bezero edota laguntzaileekin lan egiteko.

- ★ Google: *Google Maps* erabiliko dugu gure aplikazioan, hortaz, Googlerekin lan egingo dugu eta bere baimena izan beharko dugu aurrera eramateko geure ideia.